

Xabier Letona



DANI BLANCO

Zer diote?

BRUNETE MEDIATIKOARI

buruz askoz gehiago idatzi izan da euskal hedabideetan, eta haren soldaduek ere askoz gehiago idatzi izan dute euskal kontuek. ETAk 2011n bere jarduera armatua utzi izanak, ordea, euskal bazka gabe utzi ditu neurri batean. Neurri batean bakarrik, ETAk bizirik jarraitzen baitu oraindik; haietako gehienentzat, gainera, ETA eta EH Bildu berdintsuak dira. Presoak ere hor dira. Biktimak. Separatismoa... Baina, gainera, badute mehatxu handiagorik euskal lurretatik harago. Batetik Katalunian, bestetik etxean bertan, Podemosekin.

Euskal gizartearen esparru gero eta zabalago batek gero eta kasu gutxiago egiten die, baina bertako komunikabide talde garrantzitsuenen sinadura esanguratsuak dira oraindik. Aspaldi-ko partez, haiengana zuzendu dut begirada, ea zer dioten. Denetarik eta era kontrajarrarian batzutan, baina oinarri bateratu batzuen bueltan: 78ko Konstituzioa, Espainiaren batasuna eta legea, behar izanez gero indarrarekin defenditu beharrekoa.

Estatuaren indarra. Joseba Arregi jeltzale ohiak bereziki du gustuko gogoratzea Estatuaren oinarriaren biolentzia legitiimoaren erabilera dagoela eta horrekin amaitu zela ETArekin eta ez elkarriketarekin: “Polizia borrokari kontrajarriz, faltsuki ‘politika’ deitzen den horretara jo gabe, negoziazioa eta elkarriketa dotore horietara jo gabe, amore eman gabe, egiazki, hori baita belarrira hain ondo egiten duten termino horien atzean dagoena, haiei legea indarrean jartzea kontrajartzen zaienean. Etsi gabe, elkarriketa

eta negoziazioaren beharrik gabe menperatu da ETA” (*El Correo*, 2014-12-08).

ETAk irabazi du. Jesus Lainz idazle santandertarra, aldiz, ez dago bat ere ados: “ETAk ez du bere jarduera hiltzailea utzi damutzeagatik edo menperatua izan delako, errentagarria ez dela ohar-tu delako baizik, sasoi bateko sostengu sozialik ez duelako. Gainera, dagoeneko ez du enpresariak mehatxatzeko beharrik, gaur egun instituzioetan dagoenez egiazko zergak erabiltzen dituelako, askoz handiagoak eta eskuratzeko errazagoak (...). ETAk ez du porrot egin. Guztiz kontrakoa: nazionalismoa handitzea lortu du, kontzesio gehiago, esaterako inposaketa linguistikoa edo hezkuntzaren erabilera adoktrinamendurako” (*Libertad Digital*, 2014-12-11).

Eta iraun nahi du. Polizia iturrietatik edan du beti Florencio Dominguez-ek: “Dirudiena baino errazagoa da autodesegetea, horretarako borondatea baldin badago, eta hori da ETAk ez duena, bere barne debateetan dagoeneko erabaki baitu ez dela desegingo. Biolentziari uko egin badio ere, erakunde gisa iraun nahi du. ETA eta nazioarte mailako lagun talde jendetsua lanean ari da IRaren erdua jarraitzen duen armagabetze moldeak taulartzeko; eta Ostiral Santuko akordioaren sinaduratik 16 urte iragan badira ere, talde hori ez da oraindik desegin” (*El Correo*, 2014-12-14).

Otegiren zain dira. Jaime Mayor Orejak euskal gizartearen ere Kataluniakoa badatorrela iragartzen du. “Dagoeneko ez gaude ez auto-

nomian ezta autodeterminazioan ere, apurketan baizik. Katalunia dago abangoardian, baina Euskal Herrian Otegi espetxetik atera zain daude, eta hori udal hauteskundeak eta autonomikoen artean gertatuko da. Ez da Espainiako Gobernuaren tratu txarra, nazionalismoaren genetika da. Kontua ez da Mas edo EAJrekin bat egitea: doan ateratzen ez zaiela ulertu arte, haiek ez dira apurketatik aterako. Eta espainiarrek ulertu arte gehiengo oso indartsua behar dugula hari aurre egiteko” (*ABC*, 2014-12-13).

Irabaz dezakete. Isabel San Sebastian ere ezin falta irakurketa honetan. Klasikoetan zorrotz eta gogorrenetakoa izan da. Aipatu gabe ere, Espainian beldurra eritearen garrantziaz mintzo da, bestela Podemos eta ETAk irabaziko dutelako: “Podemos eta Amaier/Bildu/Batasuna/ETAk (berdintsu dira guztiak) desirak partekatzen dituzte eta hauteskunde esparru bera lehiatzen dute. Hazten doan espazioa da, aurkariak politikara agertzen ez direnez gero eta hutsago, eta Euskal Herria eta Nafarroako boterearen giltza gordetzen duena; han hasi zen orain Katalunian lehertu den eraso. (...) Eta ideien eremuan aurre eginda inork geldiarazten ez badiu, gauzak bere izenez deitzen ez badi-tugu, ezerk ez du eragotziko haien garaipena” (*ABC*, 2014-12-14).

Naftalina usaina sarkorra da. Hedabide indartsuenetan oraindik bizi den diskurtsoa da, baina euskal gizartearen desagertu da ia. 78ko erregimenaren gain-behera da. ■

